

**2015EKO AZAROAREN 23AN SASIETA MANKOMUNITATEKO
BATZORDE ERREKTOREAK EGINDAKO BILERA**

LEKUA: Beasaingo Udalerria

ARETOA: Batzar- Aretoa

EGUNA: Hogeita hirua

HILABETEA: Azaroa

URTEA: Bi mila eta hamabost.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko seiak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

LEHENDAKARIA: Aitor Aldasoro Iturbe, Beasaingo ordezkaria

BILDUA: Eluska Ibarguren, Altzagako ordezkaria
Luis Garmendia Sagastume, Aramako ordezkaria
Asier Rodriguez Etxeberria, Ataungo ordezkaria
Edorta Diaz del Rio, Beasaingo ordezkaria
Garikoitz Aiesta Etxaniz, Ezkio-Itsasoko ordezkaria
Arantxa Bidegain Ormazabal, Gabiriako ordezkaria
Jesus María Garmendia Gorostidi, Gaintzako ordezkaria
Ioritz Imaz Baztarrika, Idiazabalgo ordezkaria
Asier Garro Sodupe, Itsasondoko ordezkaria
Felix Urkola Iriarte, Lazkaoko ordezkaria
Iñaki Estensoro Sarasola, Lazkaoko ordezkaria
Koldobike Olabide Huelga, Legazpiko ordezkaria
Oscar Valbuena Pascual, Legazpiko ordezkaria
Iñaki Ugalde Alustiza, Mutiloako ordezkaria
Jokin Garmendia Arruabarrena, Olaberriko ordezkaria
Igor Eguren Izagirre, Ordiziako ordezkaria
Miren Alazne Sukia Galparsoro, Ordiziako ordezkaria

Olaia Izagirre Cruz, Ormaiztegiko Udala
Eñaut Telleria Urkia, Segurako ordezkaria
Igor Zubillaga Aguado, Urretxuko ordezkaria
Itziar Agirre Berriotxo, Urretxuko ordezkaria
Jose Antonio Etxabe Nazabal, Zaldibiko ordezkaria
Joseba Izagirre Arocena, Zegamako ordezkaria
Amaia Junquera Landeta, Zeraingo ordezkaria
Mikel Serrano Aperribay, Zumarragako ordezkaria
Ricardo Lozano Landart, Zumarragako ordezkaria

ETORRI GABEAK: Mariano Garmendia Iparragirre, Legorretako ordezkaria

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

Bileran ere parte hartu dute, Lurdes Alegria Lasa Kontuhartzaileak, Iñaki Erauskin Urretabizkaia Zerbitzuburuak eta Enrike Enparantza teknikariak.

1.- AURREKO AKTA. 2015eko urriaren 26ko aktaren berri eman ondoren, aho batez ondorengo aldaketak egin dira, Itsasondoko ordezkariak eta Ataungo ordezkariak eskatuta hurrenez hurren:

- 3. puntuan, *“Aitor Aldasoro Lehendakariak: “Niretzat eskandalua izan da gertatutakoa. Ez dugu ahaztu behar azken urteotan zaborren igoera %0a izan dela.”*, esaten duten tokian ondorengoa esan behar du: *“Aitor Aldasoro Lehendakariak: “Niretzat eskandalua izan da gertatutakoa. Ez dugu ahaztu behar herri batzuetan, hala nola, Lazkaon eta Beasainen azken urteotan zaborren igoera %0a izan dela eta orain Sasieta Mankomunitateari egin beharreko ekarpenak kontuan izan da, zabor-tasa igo beharrean gaude eta lehengo urteekiko diferentzia nabarmena izango da”*.

- 3. puntuan, *“Altzagako ordezkariak adierazi du momentuz Altzagak ez duela ekarpenik egingo.”* Esaldiaren jarraian ondorengoa esan behar du: *“Ataungo ordezkariaren esanetan, Ataun, ez dago prest 2015. urtean ekarpena egiteko. Bai, ordea 2016. urtean.”*

2.- MANKOMUNITATEA OSATZEN DUTEN UDALERRIEN EKARPEN

BEREZIA: 2015eko abenduaren 31rako aurreikusten den aurrekontu-emaitza negatiboari eta Altxortegiko Gerakin negatiboari aurre egiteko Sasieta Mankomunitatea osatzen duten udalerrien ekarpen berezia onartzeko proposamena.

Aitor Aldasoro lehendakari jaunak ondorengo proposamena egin du:

“Lehenik. Mankomunitatea osatzen duten udalerriei jakinaraztea, 2015eko abenduaren 31rako aurreikusten den aurrekontu-emaitza negatiboari eta altxortegiko gerakin negatiboari aurre egiteko, ekarpena egin beharrean daudela.

Bigarren. Udalergi bakoitzari dagokion ekarpena, jarraian aipatzen den koadroan aurreikusten da:

APARTEKO UDAL EKARPENA / APORTACION MUNICIPAL EXTRAORDINARIA		
UDALERRIAK MUNICIPIOS	2015eko partehartze portzentaia Porcentaje de participación 2015	Aparteko ekarpena Aportación extraordinaria
ALTZAGA	0,3153%	2.097,83 €
ARAMA	0,3584%	2.384,35 €
ATAUN	2,5359%	16.870,59 €
BEASAIN	17,0250%	113.262,80 €
EZKIO-ITSASO	1,2355%	8.219,38 €
GABIRIA	0,8809%	5.860,09 €
GAINTZA	0,3874%	2.577,18 €
IDIAZABAL	3,0383%	20.213,02 €
ITSASONDO	1,1509%	7.656,51 €
LAZKAO	7,7876%	51.808,98 €
LEGAZPI	12,4054%	82.529,88 €
LEGORRETA	2,1249%	14.136,27 €
MUTILOA	0,8826%	5.872,02 €
OLABERRIA	2,7423%	18.244,10 €
ORDIZIA	13,7875%	91.724,92 €
ORMAIZTEGI	2,1982%	14.623,97 €
SEGURA	2,1166%	14.080,87 €
URRETXU	9,1369%	60.785,33 €
ZALDIBIA	2,4576%	16.349,47 €
ZEGAMA	2,1911%	14.576,69 €
ZERAIN	0,6670%	4.437,62 €
ZUMARRAGA	14,5748%	96.962,14 €
TOTAL	100,0000%	665.274,00 €

Hirugarren. Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak hitzez konpromisoa hartu du Sasieta Mankomunitateari ekarpena egiteko honek zati bat “altan” kudeatzen duelako (transferentzia estazioa), Kontsortzioari dagokiona. Konpromiso hori gauzatu ezker, udalerrri bakoitzari ordaintzea tokatzen zaionetik kenketa egingo da, Sasieta Mankomunitatearekiko Udalek duten zorra estali ahal izateko.

Laugarren. Erabaki honen berri Mankomunitatearen kide diren udalerriei ematea, beronen aurka aurkeztu daitezkeen errekursoen aipamena eginez.”

Lehendakari jaunak adierazi du GHK hitzez hartutako konpromisoa idatziz bidali beharko duela eta jakiten denean bere ekarpena zenbatekoa den, posta elektronikoaren bidez jakinaraziko zailea Mankomunitatea osatzen duten herriei.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, ordezkari batek gogoratu du herri batzuek duten zailtasuna ekarpena egiteko.

Lehendakariak esan du horretaz jabetzen dela, baina GHKren ekarpenak, herri bakoitzak bere aldetik egin beharrekoa jaitsi egingo duela eta horrek udal ezberdinek egin beharreko esfortzua gutxiagotu egingo duela.

Beste ordezkari batek eskatu du azaltzeko foru fondoa noiz erabili daiteken.

Kontuhartzaile andreak: “Nahiz eta ekarpen hori berezia izan, ez du ez ohiko izaerarik. Horren ondorioz, Foru Aldundiari eskatu ezker, honek Udalei egin beharreko ordainketetatik, atxikipena egin dezake eta kopuru hori Sasieta Mankomunitateari ordaindu diezaioke. Horrek ematen dio Mankomunitateari kobraketarako bermea eta horren ondorioz Mankomunitateak bere aurrekontuan ekarpen berezi hori onartu dezake. Horrela diruzaintzako negatiboa saihestuko luke.”

Gaia behar adina bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 17

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 8

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da proposamena.

3.- SASIETA ZABORTEGIAREN ETROKIZUNARI BURUZKO ERABAKIA.

Une honetan batzarraldira sartu dira, Ordiziako ordezkaria, Miren Alazne Sukia Galparsoro eta Urretxuko ordezkaria, Itziar Agirre Berriotxo.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailordetzan, 2015-11-11n egindako bileraren berri eman da:

1.- AURREKARIAK:

- a) Sasieta Mankomunitateko Batzar Errektoreak, 2014ko azaroaren 25ean eginiko bilkuran hartuko akordioan oinarriturik, Eusko Jaurlaritzari 2015eko urtarrilaren 31tik aurrera zabortegiko jarduera ALDI BATERAKO etengo zuela jakinarazi zion.
- b) Ingurumen Sailburuordearen 2015eko maiatzaren 19ko Ebazpenaren bidez, aldi baterako gelditzea ADITZERA EMAN eta Sasieta mankomunitateari hondakin ez-arriskutsuen zabortegiaren jarduera garatzeko emandako Ingurumen-Baimen Bateratua (IBB) ERAGINKORRA egin zen.
- c) 815/2013 Errege Dekretuko 13. artikuluan ezarritakoaren arabera, jarduera aldi baterako etetearen IRAUPENA ezingo da BI URTE baino gehiago luzatu jakinarazten den unetik hasita. Beraz, epea 2017ko urtarrilaren 31n amaitzen da, hau da, 14 hilabete barru gutxi gorabehera.

2.- AINTZAKOTZAT HARTU BEHARREKOAK

2.1. LEHEN KONTSIDERAZIOA: SASIETA ZABORTEGIAREN INPERMEABILIZAZIOA (ZELDA EGITEA)

Zabortegiaren jarduerari berriz ekiteko indarrean dagoen Ingurumen-Baimen Bateratuan (IIB) ezarritako baldintzak nahitanahiez bete behar dira.

Baldintza guztien artean, D.2. atalean ezarritako baldintza da **garrantzitsuena**: “Zorua egokitzeko eta zabortegiko inpermeabilizazio obrak egiteko baldintzak”. Zabortegiko jarduera aldi baterako gelditzeko erabakia hartzea eraman zuen baldintza berbera da.

D.2.- Condiciones para la adecuación del vaso y ejecución de las obras de impermeabilización del vertedero

Tal y como se indica en el apartado Primero, el vertedero se encuentra actualmente en situación de cese temporal de la actividad.

A partir del 30 de abril de 2015 no se podrá realizar el vertido de cualquier tipo de residuos sin dar cumplimiento a las condiciones establecidas en el apartado D.2.2.

En el caso de que SASIETA MANKOMUNITATEA pretenda habilitar una celda para el vertido, se deberán ejecutar las obras necesarias para garantizar que la impermeabilización de esa celda cumple con los requisitos solicitados en el apartado D.2.2. de esta Resolución. Previamente, se deberá presentar ante el órgano ambiental, además del proyecto constructivo que especifique la secuencia de impermeabilización, la previsión de obras y un estudio de estabilidad basado en información histórica sobre los asentamientos en la zona en la que se prevea ejecutar la celda. El órgano ambiental deberá aprobar expresamente en base a la documentación presentada el reinicio de la actividad de vertido.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Bateratuaren Zerbitzuko Arduradun Teknikoak argi eta garbi adierazten du zabortegiko azken plataforma gainean hondakinentzako zelda eraikitzea aurreikusten bada, Eusko Jaurlaritzak sustatzaileari zelda egin behar den zonaldeko gutxienez bost urtetan bildutako asentamentuen informazio historikoa esijituko diola.

Asentamentuen kontrola egiteko denboraldiaren iraupena zabortegi motaren arabera da eta kontutan izan behar da Sasieta zabortegia «hondakin ez-arriskutsuentzako zabortegi misto» bezala dagoela izendatua, «batez ere hondakin organiko edo biodegradagarri eta baita hondakin ez-organikoz osatua (B3 azpikategoria)», 49/2009 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

Hori dela eta, zabortegei mota kontutan izanik eta bertan botatako hondakinen izaera kontutan izanik, IPPC Zerbitzuko Arduradun Teknikoak adierazten du asentatzearen inguruan eskatuko den informazio historikoa 5 eta 7 urte bitartekoa izango dela. Kontrol historiko honen helburua oinarrizko asentatzearen amaiera segurtasunez ziurtatzea da, ondoren obratuko proiektuan aurreikusitako behin betiko soluzio teknikoaren asentatze osoa kalkulatu ahal izateko, zelda berriak erantsitako kargak eragindako asentatze sekundarioa kontutan izanik.

Halaber, Arduradun Teknikoak dio asentamentuak zaintzeko betebeharrak hori zabortegeiaren azaleraren inpermeabilizazio-obra egin eta behin betirako zigilatzea aurreikusten denean ere berdin eskatzen dela. Egia da ordea, kasu honetan ziurgabetasuna askoz txikiagoa dela.

Sasieta zabortegeiaren egindako kontrol geometrikoetan lortutako datu historiko errealek Ingurumen Sailak ezarritako 5 urteko kontrol-eparekin bat datoz. Kontrol hauen arabera zabortegeiaren etengabeko asentatzeak antzematen dira, metro batetik gorakoak eta 5 urtetik aurrera egonkortzen joaten dira. Azpimarratu, zabortegeiaren goiko plataforman egindako asentatze-kontrolen arabera, 0,5 metroko asentatzeak antzeman direla 2015eko martxotik azarora bitartean (8 hilabete).

Goian aipatutako asentamentuen kontrol historikorako epearen arabera, zabortegeiaren azken plataforma gainean zelda egitea aurreikusiz gero, denborari dagokionean EZINEZKOA da 2017ko urtarrilaren 31a baino lehen zabortegeiaren jarduerari berriro ekitea.

2.2. BIGARREN KONTSIDERAZIOA: ARAZTEGIETAKO LOHIAK EGONKORTZEA

Inongo zelda egin aurretik ezinbestekoa da zabortegeiaren pilotutako araztegietakoa lohia egonkortzea (edo kanpoko beste instalazio batetara bideratzea).

Eginkizun hau zabortegeiaren azalerako inpermeabilizazioa eta behin betiko zigilatzea egin nahi izanda ere behar beharrezkoa da.

Aztertu diren hiru aukeren exekuzio-kronogramak (kare mikronizatuarekin nahastu eta bertan egonkortzea, eskoria txuriarekin nahastu eta bertan egonkortzea eta kanpoko konpostatze-plantarara bideratzea) 8-12 bitarteko iraupena dute, beti ere baldintzarik onenetan eta inongo ezustekorik gabe.

Aukera merkeeneko 12 hilabeteko iraupena aldi baterako itxieraren epea agortzeko falta diren 14 hilabetearen ia parekoa da.

1. AUKERA. LOHIEN EGONKORTZEA ZEPA ZURIA ERABILIZ. Kostua zehazteke froga amaitu arte: 280.000-300.000 euro

EGIN BEHARREKOAK	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
Froga, baliabide errealak erabiliz (lau aste)												
Proiektua idatzi (lau aste)												
Pleguak idatzi, argitaratu, Kontratazio Mahaiko bilerak egin, esleipena egin eta kontratuaren formalizatu												
Egonkortze lanak (8 hilabete) (*)												

(*) Epea zepa ekartzeko erritmoaren arabera ditzango da.

(*) Eguraldiaren arabera epe hau luzatu daiteke

2. AUKERA. LOHIEN EGONKORTZEA KARE MIKRONIZATUA ERABILIZ. Kostua: 1.363.436,71 euro

EGIN BEHARREKOAK	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
Froga egin dago eta Proiektua idatzia dago												
Pleguak idatzi, argitaratu, Kontratazio Mahaiko bilerak egin, esleipena egin eta kontratuaren formalizatu												
Egonkortze lanak (6 hilabete) (*)												

(*) Eguraldiaren arabera epe hau luzatu daiteke

3. AUKERA. LOHIAK ZABORTEGITIK ATERA KONPOSTATZEKO. Kostua: 940.000 euro (beti ere inpropioak < %10 izanik)

EGIN BEHARREKOAK	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
Froga egin dago eta Proiekturik ez da behar(*)												
Pleguak idatzi, argitaratu, Kontratazio Mahaiko bilerak egin, esleipena egin eta kontratuaren formalizatu												
Lohiak kargatu eta zabortegitik ateratzea (9 hilabete) (*)												

(*) Eguraldiaren arabera epe hau luzatu daiteke.

(*) Litekeena lohien zati bat atera gabe geratzea inpropioak %10a gainditzen dutelako eta bertan egonkortu behar izatea.

IPPC zerbitzuko Arduradun Teknikoak dio, lohiak egonkortzea erabakitzen bada, zabortegiko azalera guztian ere uniformean zabaldu beharko liratekeela. Behin zabaldu eta gero, asentatzearen azterketa historikoa zerotik hasiko litzateke berriro.

Sasietako teknikoek adierazi dute hiru alternatiben artean merkeena eskoria zuria erabiltzearena dela eta orain lau aste iraungo duen froga industrial bat egiten ari direla ziurtatu ahal izateko sistema hori erabiltzea dela onena.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, Garikoitz Aiesta, Ezkio-Itsasoko ordezkariak ondorengo adierazi du: “Orain dela urte bete geunden egoera berdinean jarraitzen dugu. Arau berdina izanik, lehen ez zen finkatzen zaborteziaren estabilizazioa. Orain bost urteko kontrol-epea ezartzen da. Lehen, aldiz, ez zuten ezer esan. Honekin guztiarekin urte bete galdu dugula uler dezaket. Orain ematen zaigun informazioa entzunda, gaia grabea dela iruditzen zait eta transparentzia falta dagoela esango nuke.

Iñaki Erauskin Zerbitzaburuak: “GHKko teknikariek egin zituzten kontsultak, lohien inguruan izan ziren. Beraien asmoa arazo hori konpontzea zen. Horren ondoren, agian, beste gaiei buruzko kontsultak egingo zituzten. Hitzarmena sinatzeko garaian Sasietako teknikariok apartatuta geratu ginen.

Garikoitz Aiesta, Ezkio-Itsasoko ordezkariak: “Nire kritika Eusko Jaurlaritzako teknikariekiko da eta ez Sasietako teknikariekiko”.

Beste ordezkari batek adierazi du “aipatu diren baldintzak 2011koak direla eta horrek esan nahi duela lau urte galdu direla. Lohiak tratatu egin behar zirela dio, gero inpermeabilizazioa egiteko”.

Garikoitz Aiesta, Ezkio-Itsasoko ordezkariak: “Ebazpena 2011koa da eta lau urte pasatu behar izan dira Eusko Jaurlaritzak zerbait esateko.”

Enrike Enparantza teknikariak: “2011n gorako errekurtsioa aurkeztu zen eta erantzunaren zain geratu ginen. Tarte horretan Eusko Jaurlaritzak ikuskarpena egin zuen eta ez zuten aintzakotzat errekurtsioa hartu, nahiz guk eskatu errekurtsioari erantzuna emateko. Hasieratik bete zen eskatu zutena. Efektibitatearena aurtengo gauza da. “

Aitor Aldasoro Lehendakari jaunak: “Aurreko legealdiko lehendakariak esan zuen zabortezi berritza irekitzea bideragarria zela GHKk esaten zuenaren arabera.

Zabortezi ixtea erabakitzen bada, Organikoa (orain bezala) Nafarrora, Funesera eramango da eta errefusa Lapatzeko zabortezi. Horrek eskatzen du transferentzia geltokia egitea, zaborteziaren alboan. Negoziatzen ari gara GHKekin transferentzia geltokia egiteko eta zabortezi langileak bere gain hartzeko.

Gaia behar adina eztabaidatu eta gero ondorengo proposamena bozkatu da:

“Lehenik Sasieta zabortegiaren behin betiko itxiera erabakitzea eta Ingurumen sailari erabakia jakinaraztea.

Bigarren.- Lehenbailehen lohiak egonkortzea edota konpostatzera bidaltzea, aldez aurretik Ingurumen sailari jakinaraziz eta bere oniritzia jasoz. Horrekin batera, lixibatuak gutxitzeko neurriak hartzea.

Hirugarren.- Zabortegiko azalera birmoldatzea, behin betiko zigilatzeke geruza jartzeko malda egokiak sortu asmoz, Ingurumen sailari, zabortegiko Ingurumen-Baimen Bateratuko E.2. betebeharrean ezarritakoaren arabera, gehienezko hiru hilabeteko epean zabortegiko behin betiko konformatua osatzeko baimena eskatuz.

Laugarren.- Ingurumen sailari zabortegia behin betiko zigilatzeke Obren Exekuzioko Proiektua egokitu eta bidaltzea, behin betirako zigilatu beharreko azaleraren morfologia kontutan izango duena.

Bosgarren. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailari erabaki honen berri ematea, beronen aurka aurkeztu daitezkeen errekurtsoen aipamena eginez.”

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 15

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 12

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da proposamena.

4.- IDAZKARI ETA KONTUHARTZAILE LANPOSTUEI BURUZKO PROPOSAMENA.

Aitor Aldasoro, Lehendakari jaunak proposamen honen berri eman du:

I.- Igaro den ekainean Korporazio berriak osatu ondoren, 2015-09-08an Sasieta Mankomunitateko organoak eratu ziren eta Lehendakaria izendatu izan zen, Aitor Aldasoro Iturbe, Beasaingo Alkatea jauna.

II.- Mankomunitateko estatutuak 1991koak dira eta 6. artikuluan adierazten dute, Idazkari eta kontuhartzaile funtzioak beteko dituztela Lehendakaria den herrikoak direnak.

III.- Mankomunitateak 2015. ekitaldi ekonomikorako duen aurrekontua 11.490.960 €koa da eta Mankomunitatea osatzen duen udalerriek ordezkaturako eskumenak, hiri hondakinen kudeaketa eta zaborategia ustiatzea, dira.

IV.- Egun, Idazkari eta Kontuhartzaile funtzioak betetzen dituzten eginkizunak:

- Estatutuetan xedatutakoan bakarrik oinarritzen da,
- Foru Aldundiaren aldetik inolako baimenik ez dago.

OINARRI JURIDIKOAK

Lehenik. Toki-erakundeetako Biztanleriaren eta Lurralde Mugapenaren Araudiak bere 37,3 artikuluan xedatzen du, Mankomunitateen gobernu organoetan Idazkari kargua, eta Kontuhartzaile-Diruzainarenak, egonez gero, gaikuntza nazionalako funtzionarioek burutu beharko dituztela.

Horren ondorioz, Batzar Errektoreari ondorengo proposamena egiten zaio:

Eusko Jaurlaritzako Administrazio Publiko eta Justizia departamenduari ESKAERA egitea, Sasieta Mankomunitatearentzat Idazkari/Kontuhartzaile plaza sortzeko, ondoren legeak ezartzen duen prozedura jarraituz hornitu ahal izateko.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

5.- LEHENDAKARIAK EMANDAKO EBAZPENEI BURUZKO
INFORMAZIOA: 19/2015 zenbakia duena.

Ezagutzera eman da aipatutako ebazpena, hau da:

“Gaia: Ekintza judizialen eragiketa

Kontuan izanik:

1.- Donostiako Administrazioarekiko Auzietako 1 zenbakiko Epaitegian, 31/2014 errekurtsua izapidetzen ari dela.

2.- 2014ko uztailaren 24an, orduan Sasieta Mankomunitatearen Lehendakaria zen, Azeari Andonegi Beristain jaunak emandako Ebazpena, aipatutako prozeduran agertzeko, Aitor Iztueta Garaikoetxea abokatu jaunaren gidaritzapean eta Ainhoa Kintana Martinez prokuradore andrearen ordezkartzapean.

Lehendakaritza honek egun indarrean dagoen legeriak ematen dizkidan eskumenak erabiliz eta Erregimen Lokaletako Oinarriak erregulatzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21,1K) artikulua, ekintza judizial eta administratiboak eragiteari buruz xedatutakoaren arabera, ondorengoa

EBATZI DU

Lehenik. 2014ko uztailaren 24ko Lehendakariaren Ebazpenaren bidez Aitor Iztueta Garaikoetxea abokatu jaunaren eta Ainhoa Kintana Martinez prokuradore andrearen alde egindako **izendapena bertan behera uztea.**

Bigarren. 31/2014 administrazioaren aurkako errekurtsuan Sasieta Mankomunitatea parte hartzen jarraitzea, **Aitor Gabilondo Ruiz abokatu jaunaren zuzendaritzapean eta M^a Luisa Linares Farias prokuradore andrearen ordezkartzapean.**

Hirugarren. Ebazpen honen berri ematea, kargutik kendutako abokatu eta prokuradoreari eta ebazpen honetan izendatu direnei.

Laugarren. Ebazpen honen berri Batzar Errektoreari ematea egiten den lehenengo bileran.”

6.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera, gaueko zortziak eta hogeita bostetan amaitu da eta nik, idazkaria naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.